

Euskal AEko eraikuntza sektorea %3,5 gehitu zen 2016ko bigarren hiruhilekoan


%1eko gehikuntza 2016ko lehen sei hiletan.

Eustaten datuen arabera, 2016ko bigarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %3,5 nominala gehitu zen Euskal AEko eraikuntza jarduerak.

Eraikuntza sektorearen hobekuntza Etxegintza azpisektoreari zor izan zitzaion, urte arteko %6,2ko gehikuntza izan baitzuen; Obra zibilean %-11,2.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2016ko bigarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %1,9 gehitu zen, 2016ko lehenengoaren aldean.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturari buruzko indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



2016ko bigarren hiruhileko jarduerak aurrekoarekin alderatuz gero, Obra Zibilak %-2,8; Etxegintzak %+2,7.

Euskal AEko eraikuntza sektorea %1,0 gehitu zen 2016ko lehen sei hilekoan 2015ekoaren aldean.

Eraikuntzako enplegua %0,2 gehitu zen 2016ko bigarren hiruhilekoan lehenengoaren aldean.

1. taula: Eraikuntzaren koiunturaren II indizea. Euskal AE. Aldakuntza tasak (%). II/2016

	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	II 16/II 15	At/At-1 (1)	II 16/I 16	I 16/IV 15
Produkzioaren Indizea	3,5	1,0	1,9	0,4
Eraikuntza	6,2	3,1	2,7	1,1
Obra zibila	-11,2	-11,0	-2,8	-3,9
Landunen Indizeak	-	-	0,2	-0,3

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturako indizea (EKI); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturako indizea (EKI); datu-bankua